

# Asisko gutuna

2016ko Apirila. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

90. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Bigarren printzipioak honela diosku: barnerantz, umiltasuna. Baina ez gure mixeriangatik, baizik merezimendurik gabeko maitasunez maitatuak ikusten garelako, eta Jainko maitasun xamurrez begiratuak. Adiskidetzen gaituena bere maitasuna da. Erdi Aroko eliza batean honako hau dio: “Izan bitez hamar, izan hoge, izan ehun, mila, milioia, milaka milakako, aireak astintzen dituen hostoak haina edota gure itsasoak lotzen dituen hondarrak baino gehiago; izan bitez, bada, inolaz zenbatu ezinak zuk egin edo egingo dituzun bekatuak: Jaunarengana irekirik itzultzen zaren orduko bere maitasunaren ezia dastatuko duzu.”

## Gogoetarako gaia

### *Neure buruarekin adiskidetz*

Bizitzan aurrera goazen neurrian, gero eta arrisku gehiago daukagu oker jokatzeko: min ematen diegu maite ditugunei, erabaki desegokiak hartzen ditugu, behin eta berriro geure barruan daramagun eta gustatzen ez zaigun zerbaitekin... egiten dugu topo. Kolokan ibiltze horiek azpia jaten digute hainbat arrazoiengatik: norberak ikusten du, ez dela bere joera txarretatik askatuko, edo gainean eraman beharko duela bere jite haserrekorra, edo besteek ezerezizat joa izango dela etengabe, ezetz esaten ez dakielako... Agian iraganean badago oroimenera datorren gertaeraren bat, bizitzarako behar den oinarrizko oreka galarazten duena. Beti dugu zerbait, geure buruarekin adiskidetzen uzten ez diguna.

Ahalegindu izango gara horretatik libratzen, berori gainditzeko, sendatzen. Batzuetan lortu dugu; baina badaude ezabatu edo konpondu ezin diren errealitateak. Zer egin? Zama edo zauri hori geure bizitza osoan eraman beharko al dugu gainean? Horixe da, geure giza ahulezia

biziki oroitaraziko digun eztena. Beharbada berori dugu abagunea, gezurretan, behin eta berriro geure buruarekin eta besteekin ilusioak amestuz, ez ibiltzeko

Beharrezkoa dugu geure buruarekin, dugun bezalakoarekin, adiskidetzeari. Horrek saiatzea eskatzen du, apaltasuna, pazientzia... Baina batez ere erreferentzia bat behar da, jada geure parte ditugun muga eta zaurietatik at onartzen eta maitatzen gaituen norbaiten erreferentzia. Horrela bakarrik sumatuko dugu, mugatzen gaituen guztia baino gehiago garela, eta horretan guztian, hain zuzen, onartu eta maitatu ahalko dugu geure burua. Maitatua sentitzeak neure hutsegite, muga eta saminezko historietatik at bizi-razten nau. Hori bai, apalki, errealista izanez, baina ez menderatua; ni perfektua eta akatsik gabekoa izatea eskatzen ez duen maitasun huts doakoa dela medio.

Jainkoa eta haren maitasuna da ni neurekin gehien adiskidetzen eta baketzen nauena. Eta horrela izan naiteke sendatua.

## Ebanjelioko pasartea: Mt, 9, 9-13

Jesusek, handik atera eta bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eserita, eta esan zion: “Jarraitu niri”. Mateok zutitu eta jarraitu egin zion. Geroago, Mateoren etxean zegoen Jesus mahaian; beste zergalari eta bekatari asko ere Jesusekin eta honen ikasleekin ziren mahaian. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: “Nolatan jaten du zuen maisuak zergalari eta bekatariekin?”. Jesusek entzun eta esan zion: “Ez dute osasunduek behar sendagilea, gaixoek baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: Nahiago dut errukia sakrifizioak baino. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatarietara baizik”.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Rizerio izeneko anaia batek, jatorriz eta bizieraz nobleak, erabateko ustea zuen Frantzisko dohatsua-  
ren merituetan. Eta pentsatzen zuen, Santuaren onginahia zuenak Jainkoaren grazia merezi zuela;  
eta alderantziz, ongina hori ez zuenak Jainkoaren haserrea. Eta bihotzez nahi zuen Santuaren on-  
ginahia bereganatu; baina beldur zen hark ezkutuko hutsegiteren bat aurkituko ziola, eta horregatik  
bere ongina hitik urrunduko.

Inori azaltzen ez zion etengabeko atsekabe astun horren menpean zebilela, egun batez, ohi bezala  
kezkatuta, aita dohatsua otoitzean ari zen gelara hurbildu zen. Jainkoaren gizonak, haren etorreraren  
eta barnean zerabilen kezka berri izanik, dei egin zion xeraz eta esan: “Seme, aurrerantzean ez  
zaitzala inolako beldurrek eta tentaldik kezkatu, oso bihotzekoa baitzaitut eta bihotzekoen ditudanen  
artean nire ongina berezia baituzu. Etorri nigana beldurrik gabe nahi duzun guztietan, eta utz na-  
zazu libertate osoz nahi duzunean”. Biziki harrিতa eta pozik gelditu zen anaia hura Aita santuak  
esan zionarekin; eta ordutik aurrera, haren maitasunaz ziur zelarik, haziz joan zen Salbatzailearen  
grazian.

## Otoitza

Ez naiz nahi nukeen bezalakoa,  
eta horrek sufrimena ematen dit.  
Jauna, ene Jainko eta Aita,  
lagun niri neure buruarekin bakeak egiten,  
neure burua onartzen  
eta maitatzen.  
Neurekin ditut  
neure noraezean ibiltzea,  
neure beldurrak,  
neure purrustada eta pazientzia faltak,  
inoiz neure inbidiak,  
neure nagikeria...  
Ez, ez naiz nahi nukeen bezalakoa,

baina aldatzeko modu bakarra,  
aurrera egiteko modu bakarra,  
neure buruarekin bakeak egitea da,  
nire ahulezia onartzea,  
eta horrela neure burua maitatzea.  
Zeren eta zuk, ene Jainko eta Aita,  
onartzen eta maitatzen nauzu,  
eta barkatzen.  
Eta ez zara nitaz inoiz aspertzen,  
eta eskutik hartzen nauzu,  
aurrera egin dezadan.

## Gutuneko azken hitzak

“Ez zaitetz zure arimaren garbitasunaz hainbeste axola. Itzul ezazu zeure begirada Jainkoarengana. mi-  
rets ezazu. Poztu zaitetz hura denaz.” (Pobre baten Jakinduria, Eloi Lecrec)

## 2016ko apirileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen  
dauzkate apirileko erreferentzia guztiak:

1 Jn 21, 1-14	7 Jn 3, 31-36	14 Jn 6,44-51	21 Jn 13, 16-20	28 Jn 15, 9-11
2 Mk 16, 9-15	8 Jn 6,1-15	15 Jn 6,52-59	22 Jn 14, 1-6	29 Mt 11, 25-30
3 Jn 20, 19-31	9 Jn 6, 16-21	16 Jn 6, 60-69	23 Jn 14,7-14	30 Jn 15, 18-21
4 Lk 1,26-38	10 Jn 21, 1-14	17 Jn 10, 27-30	24 Jn 13,31-35	
5 Jn 3, 5a-7b-15	11 Jn 6, 22-29	18 Jn 10, 1-10	25 Mk 16, 15-20	
6 Jn 3, 16-21	12 Jn 6, 30-35	19 Jn 10,22-30	26 Mt 5,13-16	
	13 Jn 6, 35-40	20 Jn 12, 44-50	27 Jn 15, 1-8	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



  
Asis Sarea

646 21 48 96

Apirileko otoitzaldia 28an izango da.